

EMANTZIPAZIO PISUAK

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Arriskuan dauden adingabeak dituzten familiak > Jatorrizko familiekin bizi ezin diren adingabeentzako arreta

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

Babes sisteman dauden **adingabeak**.

Kostua

Doako zerbitzua.

Baldintzak

Adingabeak (salbuespenak izan ezik).

Administrazioaren tutoretzapean egotea.

Zertan datza?

Emantzipazio-pisuen helburua adingabeak bizitza independenterako prestatzea da, adinez nagusi izan ondoren familia batean sartzea ezinezkoa ikusten den kasuetan ([2.4.4 fitxa](#)). Emantzipazio-pisuek eguneroko bizitza autonomoaren ahalik eta antzekoena den bizikidetza-giroa sortzen dute. Autogestio-erregimenean funtziona dezakete, eta hezkuntza-, prestakuntza- eta/edo orientazio-laguntza dute, gero gizarte- eta lan-bizitzan integratzeko. Etxebizitza arruntetan egon ohi dira.

Norentzat?

Administrazioaren tutoretzapean dauden **adingabeak**.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua da.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

Adingabe izatea (salbuespenez, 18 hilabetez, adin nagusitasunetik harago, erabiltzaile izan daitezke).

Egoitza-harrerako **neurri administratibo edo judizial bat edukitzea**.

Aita, ama edo **tutorea**, inguruabar larrien ondorioz, **zaintzeko aldi baterako ezintasunean** egotea.

Haurraren edo nerabearen **zaintza Foru Aldundiari esleitua izatea**, epaileak hala erabakita.

Non jaso dezaket zerbitzuaren berri?

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Informazio gehiago:

- [Emantzipazio pisuak Araban](#)
- [Emantzipazio pisuak Bizkaian](#)
- [Emantzipazio pisuak Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)